



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikertzailea

Sanferminak: bortxaketen tolerantziaren kronika

Sanferminetako eraso sexista mediatikoaren prozesu judizialak aurrera darrai. Espainian, bi epailek parte hartzen dute: instrukzioa daramanak eta jendaurreko epaiketa egiten duena. AEBetan, oster, instrukzioa fiskalak egiten du, prozesuaren atal horren helburua epaiketara akusatu bat eramatea delako. Beraz, emakume batek salaketa ipintzen duenean, poliziak frogak biltzen ditu eta instrukziozko epaileari aurkeztzen dizkio. Horrek atxilotuei testigantza hartzen die, haien egoera erabakitzeke. Atxilotuek erabaki horren aurkako helegitea aurkez dezakete eta, azkenean, epaileak salaketa berraztertzen du eta atxilotuen egoera finkatzen du. Aurre-epaiketa horretan, epaileak Iruñean atxilotutakoak behin-behineko erruduntzat jo ditu eta, horregatik, auziperatu ditu eta espetxean jarraituko dute, 500.000 euroko fidantza ordaindu ezean. Hala ere, hedabideek erasoak salatu zuen emakumea desakreditatu dute, erasoak bera zalantzan ipiniz, ezelango frogarik gabe, andreon sinesgarritasuna zalantzan jarriz («ustezkokeriak»):

«El Gobierno de Navarra se personará en la causa penal por la presunta violación múltiple en San Fermín» (Sinatu barik, “Noticias de Navarra”, 2016/ 07/ 20).

«Un vídeo demuestra la supuesta violación en grupo de cinco sevillanos en Pamplona» (Sinatu barik, Sevillako “ABC”, 2016/ 07/ 09).

Gainera, erasoak jasan dituzten emakumeak identifikatzeko datuak eman dituzte hedabideek:

«Intolerable agresión sexual a una joven madrileña [de 19 años] en los sanfermines» (Sinatu barik, Telemadrid.es, 2016/07/08).

Argazkia: «Exterior del portal donde ocurrieron los hechos» (“Deia”, 2016/ 08/ 04).

Atxilotuekin, ordea, hedabideek bes-telako jarrera izan dute. Haien bertsioaren berri eman dute, epaileak gezurrezkoa zela ebatzi arren! Haien esanak, ordea, egiazkotzat hartzen dituzte, «ustez» edo «balizko» esamolderik gabe:

«La defensa de los detenidos por la violación de San Fermín: ‘No hubo vio-

lencia, fueron 4 y de forma consentida»: Esgrimen que el reconocimiento médico a la chica no ha detectado signos anormales en sus genitales y que no hay marcas de violencia física». (Ignacio Murillo, Navarra.com, 2016/ 07/ 17).

«El guardia civil preso por la violación dice que no participó y que sólo grabó. El abogado del militar trata de desacreditar a la denunciante: ‘Es una rabieta’». (Enrique Conde eta Javier Bergasa, “Noticias de Navarra”, 2016/ 07/ 21).

Gainera, hedabideek atxilotuekiko errukia erakutsi dute, biktimarena egiten lagunduz:

«Familiares de los presuntos violadores en sanfermines reclaman el derecho a la presunción de inocencia: [...] Han difundido un comunicado en el que afirman que se están haciendo ‘acusaciones muy graves’». (Pablo Ojer, “El Diario Vasco”, 2016/ 07/ 09).

«Los encarcelados por la agresión sexual [...]’: ‘Es una movida que te llegue una carta con la palabra violación’». (Ignacio Murillo, Navarra.com, 2016/ 07/ 22).

Hedabideek emakumeekiko enpatiarik eza azaldu dute. Erasoen berri eman

badute, mugimendu feministak indarkeriari aurre egiten etsi ez duelako da. 2010eko sanferminetan, adibidez, TVEko “Telediario” albistegiko kazetaria zuzenean ari zela, gizon batek obatu eta bere ezpainak kazetariaren ezpainen kontra igurtzi zituen. Madrilen zegoen arduradunak Iruñeko kazetariari zuzenean esan zion: «Maribel, no provoques a ese chico, por favor», Piper Txuriak elkarteak gaitzetsi zuenez. Orain erasoak salatzeke erabiltzen diren irudiak (hainbat gizon emakume bati titiak ukitzen), 2013an jai giroan aurkeztu zituzten:

«Topless en San Fermín: La actitud desinhibida de varias chicas sin camiseta durante el inicio de fiestas de San Fermín ha enfurecido y complacido a partes iguales» (“El Correo”, 2013/ 07/ 16).

Hedabideek bortxaketaren kultura berrindartzen dute, emakumeekiko indarkeria normalizatzen dutelako eta prozedura judiziala, aldiz, gutxien dutelako. Gizonen esanei (gezurrezkoak direnean ere bai) andreon salaketari baino sinesgarritasun handiagoa ematen diete. •



Eraso sexisten aurkako kalejira isila, aurtengo sanferminetan.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS